EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA ETA ARARTEKOko IRISGARRITASUNA HOBETZEA

ESP.: ELPV-1900-R-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA ETA ARARTEKOko IRISGARRITASUNA HOBETZEA

1 XEDEA 1

2 LANEN NONDIK NORAKOAK 1

3 ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK 1

4 KONTSIDERAZIOAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK 1

5 ESKAINTZA AURKEZTEA 3

6 BALORAZIOA EGITEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK 4

7 GEHIENEKO AURREKONTUA 5

8 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA 6

9 GAUZATZE BALDINTZAK 6

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

1 XEDEA

Eusko Legebiltzarra eta Ararteko erakundeek "Ararteko: Defensoría del Pueblo Vasco – Euskadiko Herriaren Defendatzailea" erakundearen bulegoetarako sarreraren arkitektura-oztopoak kendu eta irisgarritasuna hobetu nahi dute, Eusko Legebiltzarrak Gasteizko Prado kaleko 9. zenbakian duen administrazio-eraikinaren barruan.

Hori dela eta, Soltura arkitektura-estudioari eraberritzeko proiektu bat eskatu zaio, eta hori da ELPV-1900-R-21 lizitazio honen oinarria.

2 LANEN NONDIK NORAKOAK

Agiri honen xede diren lanak honako hauek dira, erantsitako dokumentazioan deskribatutakoaren arabera:

1. Informazio-mahairako irisgarritasuna hobetzea
2. Arartekoaren bulegoetarako eta herritarrentzako arreta-gunerako ibilbideak hobetzea.
3. Segurtasun-garitaren espazioa hobetzea
4. Bilera-gelarako sarbidea hobetzea
5. Lokalak hasierako egoerara lehengoratzea eta garbiketa orokorra

Lanak esleitu ondoren egingo dira, bi hilabeteko iraupenarekin gehienez.

3 ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

3.1 Instalazioaren eskakizunen azalpena

Obraren eskakizunak eta baldintzak agiri honi erantsitako memorian, planoetan eta aurrekontuetan deskribatzen dira.

Pleguan deskribatutakoaren aldaketak onartu ahal izango dira, eta Zuzendaritza Fakultatiboak eta/edo Legebiltzarreko teknikari arduradunek onartu beharko dituzte. Inola ere ez dute gaindituko enpresa kontratistak eskainitako prezioa.

4 KONTSIDERAZIOAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK

4.1 Gauzatze-epea

Lanak kontratua esleitu ondoren hasi ahal izango dira, Arartekoarekin horretarako datarik egokiena adostu ondoren.

Nolanahi ere, lanak gehienez ere bi hilabeteko epean amaitu beharko dira, obraren zuinketa-akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

4.2 Instalazioak bisitatzea

Interesa duten enpresek bisitatu ahal izango dituzte instalazioak zalantzak argitzeko eta egungo instalazioa ezagutzeko. Horretarako, harremanetan jarri beharko dute Legebiltzarreko Mantenimendu Zerbitzuarekin (telefonoa: 945004290; e-maila: mantenimendu@legebiltzarra.eus).

4.3 Obren zuzendaritza fakultatiboa

Legebiltzarrak teknikari bat izendatuko du, bere ordezkari gisa obra-zuzendaritzako lanak egin ditzan. Teknikari horrek obrak behar bezala egiteko koordinazioa, ikuskapena, egiaztapena eta zaintza egingo ditu. Horrez gain, kontratu hau atxikitzen zaion departamentuaren (Mantentze Lanen Atala) arduradun den teknikariak eginkizun horiek egingo ditu, aurrekoarekin koordinatuta eta adostuta.

Honako hauek izango dira obra-zuzendaritzaren eginkizunak:

- Plegua eta gainerako kontratu-dokumentuak interpretatzea.
- Gauzatzeko moduari eta erabili beharreko materialei buruzko argibideak ematea.
- Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak izatea eta erabiltzea eskatzea.
- Egoki dena agintzea, behar bezala gauzatzeko.
- Sartzea komeni diren aldaketak proposatzea eta horiei buruzko txostenak egitea
- Lagapenari eta azpikontratazioari buruzko txostenak egitea.
- Ziurtagiriak ezarritako epe eta faseetan egitea.
- Kontratu-harremanean gertatzen diren gorabehera guztiak izapidetzea.

4.4 Kontratuaren arduraduna, kontratistaren aldetik

Kontratistak obrako delegatu bat izendatuko du. Delegatu horrek eginkizun diren obren izaerari egokitutako titulazio bat eduki behar du, esperientzia egiaztatua eduki behar du antzeko obretan, eta, nolanahi ere, Administrazioaren oniritzia behar du.

4.5 Segurtasun- eta osasun-koordinazioa

Eusko Legebiltzarrak izendatu ahal izango du teknikari bat, haren izenean segurtasuna eta osasuna edo Kudeaketa prebentiboa koordinatzeko lanak egin ditzan. Teknikari hori arduratuko da dokumentazioa eskatzeaz eta agiri honen xede diren obretako segurtasunari eta osasunari segimendu orokorra egiteaz.

Nolanahi ere, esleipendunak Eusko Legebiltzarrari edo horren ordezkariari eman beharko dizkio segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen direla bermatzeko behar den informazioa, eta adierazten zaizkion neurriak hartu beharko ditu.

Eskainitako prezioetan sartuta daude segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzeari lotutako kostuak.

4.6 Bermea

Lehiaketa honen xede den guztia 2 urteko bermea izango du.

Epe horretan, esleipendunak konpromisoa hartzen du hornitu eta egikaritutako ekipo, elementu eta obra-unitate bakoitzeko elementu guztiak ordezteko, Eusko Legebiltzarrari kosturik eragin gabe, baldin eta fabrikazio- edo instalazio-akatsei egozteko moduko irregulartasunak badituzte funtzionamenduan, operazioan edo instalazioan.

Berme-aldia zenbatzen hasiko da instalazioaren jasotze-aktaren datatik aurrera.

Esleipendunaren kontura egongo dira eta eskaintza ekonomikoaren barruan sartuko dira laguntza teknikoko langileetatik eratorritako gastu guztiak: joan-etorriak, dietak, garraio-kostuak eta aseguruak, erabili beharreko materialak, instrumentazioa, neurtze-ekipamenduak, dokumentazioa, mantentze- eta konpontze-stocka, euskarria eta hirugarrenen jarduerak (fabrikatzailea edo ordezkaritza).

4.7 Instalazioa jasotzeko entregatu beharreko dokumentazioa

Egindako obra onartutzat emateko, beharrezkoa izango da obran erabilitako material guztien dokumentazio teknikoa entregatzea, bai eta zuzendaritza fakultatiboak kalitate-kontrola, hondakinen kudeaketa edo beste batzuk betetzeko eskatzen dion beste edozein dokumentazio ere, lokalak eta instalazioak hasierako konfiguraziora itzuli ondoren.

5 ESKAINTZA AURKEZTEA

Kontratu hori esleitzeko, iragarkian adierazitako eguna baino lehen "AURKEZTU BEHARREKO ERASKINAK" dokumentazioa aurkeztu beharko da, beteta, www.contratación.eus plataformaren bidez.

5.1 Eskaintza ekonomikoa: III.1 ERANSKINA

Eskaintza ekonomikoa entregatuko da lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan definitzen diren kapituluen prezioetan banakatuta.

Agiri honi erantsitako aurrekontuan agertzen diren materialen eta obra-unitateen deskribapenak ez du zertan orohartzailea izan; enuntziatiboa eta soilik egin beharreko lanaren ezaugarriak hobeto ulertzera bideratua izan daiteke. Ondorioz, aipatu gabeko materialak eta erreseinatu gabeko eragiketak, obra-unitate bat gauzatzeko argi eta garbi beharrezkoak direnak, abonu-prezioetan sartuta daudela joko da.

Eskainitako partida guztiek, aurrekontu-dokumentuan adierazten den bezala, honako alderdi hauek jaso beharko dituzte: eskulanaren zati proportzionala, gremioen laguntzak, behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko behar diren bitarteko eta material osagarriak, eta obra-unitateak segurtasunez gauzatzeko behar diren segurtasun- eta osasun-neurriei dagokien zatia. Gainera, gastu orokorrei eta mozkin industrialei dagozkien zenbatekoak ere jasoko dira. Hau da, eskaintzaren prezio unitarioak behin betiko prezioak izango dira, kontrata bakoitzeko, eta dagokion BEZa baino ez zaie aplikatuko.

Eskaintzen arteko alderaketa hobea egiteko, Gorako Partida gisa deskribatutako partidetarako, agiri honekin batera doan aurrekontuan adierazitako prezio berak **mantenduko dira.** Kontratua aldatuz gero, kontratistak adierazitakoa izango da partida horretarako ordaindu beharreko gehieneko prezioa.

5.2 Obren plangintza

Lanen plangintza bat entregatuko da, eta obra esleitu ondoren, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Legebiltzarreko eta Arartekoko zerbitzu teknikoek berrikusi eta onartuko dute.

Gehienez ere 8 asteko gauzatze-epea proposatu ahal izango da.

6 BALORAZIOA EGITEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratazio-organoak, esleipena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen irizpen eta txosten guztiak jaso ahal izango ditu.

Balorazioa gehienez 100 puntukoa izango da, eransten den haztapenaren arabera:

Formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideak ..... 100 puntu

6.1 Formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeen irizpideak

PREZIOA: 100 puntu

Puntuazio handiena eskaintza merkeenari emango zaio, eta gainerakoa modu alderantziz proportzionalean baloratuko da, formula hau aplikatuta:

$$P = R \times \frac{Min}{Ofer.}$$

P=Lortutako puntuazioa
R=Apartatu honi dagokion gehieneko puntuazioa (100)
Min. = eskaintza ekonomikorik baxuena
Ofer.= baloratzen den eskaintza

6.2 Berdinketa hausteko irizpideak

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketarik badago zenbait eskaintzaren artean, honako irizpide sozial hauek (adierazitako hurrenkeran) aplikatuko dira berdinketa ebazteko, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta:

1) Plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena edukitzea; berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finko gehien edukitzea edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien edukitzea.
2) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
3) Plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena duen enpresa.
4) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Beren kargura enplegatuak dituzten langile autonomoen kasuan, langile autonomo horiek berak ere sartuko dira langileen zenbaketan.

7 GEHIENEKO AURREKONTUA

Obrak gauzatzeko lizitazio-aurrekontua honako hau izango da:

50.153,19 € + 10.532,17 € BEZa = 60.685,36 €

Prezio horiek gehienezkoak dira izatez eta, beraz, prezio horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Proposamena aurrekontuaren kapituluak laburbiltzen dituen II.1 eranskinean jasotako ereduari egokituko zaio.

Esleipendunak bere eskaintzaren banakapena aurkeztu beharko du, unitateekin eta unitate-prezioekin, kontuan hartu duen elementu, partida edo instalazio bakoitzeko, eta, logikoa denez, eskainitako guztizko zenbatekoarekin bat etorri beharko du.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren formatuak erantsi dira: itsuak, presto, bc3, Excel eta Word).

Adierazitako prezioek barne hartuko dituzte gastu orokor guztiak eta etekin industriala, zergak, aseguruak, garraioa eta proposatutako sistema giltza eskuan hornitzeko eta zerbitzutik kanpo geratuko diren instalazioak kentzeko egin beharreko lanari buruzko beste edozein kostu ere.

8 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA

Esleipendunak gehienez 2 faktura aurkeztu ahal izango ditu; bat, instalazioaren % 40 eginda dagoenean, aurkeztutako aurrekontuaren % 40koa gehienez, eta gainerako % 60a (edo txikiagoa, lehen fakturan % 40 fakturatu ez bada) instalazioa jasotzean.

Obrak amaitzean harrera-akta egin ondoren, adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzaren zenbatekoaren faktura aurkeztuko du, edo, bestela, geratzen denarena, aldez aurretik zati bat fakturatu badu. Ordainketak Eusko Legebiltzarraren 2021. urteko aurrekontuko 62201/00 partidaren kargura egingo dira.

Epemugak fakturaren datatik 30 egunera izango dira.

9 GAUZATZE BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak, eta azpikontratazioa izanez gero, azpikontratistak, bete egin beharko dituzte indarrean dauden eta laneko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurantza eta osasuneko arloan aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak.

Adjudikaziokunak langileari ordaindu beharko dio, kontratua gauzatzen den bitartean, haren lanbide-kategoriaren arabera aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ordaintzekoa den soldata ezingo da, inola ere, soldata hori baino txikiagoa izan; halaber, lan-istripuei dagokien guztia haren erantzukizun esklusibokoa da.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du, tratuari, enplegua lortzeari, lanbide-sailkapenari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, azkentzeari, ordainsariei, lan-kalitateari eta -egonkortasunari, iraupenari eta gauzatzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzeko neurrien ordenazioari dagokienez.

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA ETA ARARTEKOko IRISGARRITASUNA HOBETZEA

ESP.: ELPV-1900-R-21
MEMORIA

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA ETA ARARTEKOko IRISGARRITASUNA HOBETZEA

ESP.: ELPV-1900-R-21
PLANOAK

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA ETA ARARTEKOko IRISGARRITASUNA HOBETZEA

ESP.: ELPV-1900-R-21
AURREKONTUAK ETA NEURKETAK

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y MEJORA DE ACCEBILIDAD AL ARARTEKO

EXP.: ELPV-1900-R-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y MEJORA DE ACCEBILIDAD AL ARARTEKO

1 OBJETO 1

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS 1

3 ESPECIFICACIONES TÉCNICAS 1

4 CONSIDERACIONES, REQUISITOS Y PLAZOS 1

5 PRESENTACIÓN DE LA OFERTA 3

6 CRITERIOS DE VALORACIÓN Y DESEMPATE 4

7 PRESUPUESTO MÁXIMO 5

8 ABONO DE LA PRESTACIÓN 6

9 CONDICIONES DE EJECUCIÓN 6

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1 OBJETO

Las instituciones Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco y el Ararteko, desean suprimir las barreras arquitectónicas y mejorar la accesibilidad de la entrada a las oficinas del "Ararteko: Defensoría del Pueblo Vasco – Euskadiko Herriaren Defendatzailea" en el interior del edificio administrativo que compardel Parlamento Vasco, situado en la calle Prado Nº 9, de Vitoria-Gasteiz.

Con tal motivo se ha encargado un proyecto de reforma al estudio de arquitectura Soltura, que es la base de esta licitación ELPV-1900-R-21.

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS

Los trabajos objeto de este pliego son los siguientes, según se describe en la documentación adjunta:

1. Mejorar la accesibilidad al mostrador de información
2. Mejorar los recorridos hacia las oficinas del Ararteko y al puesto de atención a la ciudadanía.
3. Mejorar el espacio de la garita de seguridad
4. Mejorar el acceso a la sala de reuniones
5. Restauración de los locales al estado inicial y limpieza general

Los trabajos se realizarán, una vez adjudicadas las obras con una duración máxima de dos meses.

3 ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

3.1 Descripción de los requerimientos de la obra

Los requerimientos y condicionantes de la obra se describen en la memoria, planos y presupuestos adjuntos a este pliego.

Se podrán admitir modificaciones a lo descrito en el Pliego, que deberán ser aprobadas por la Dirección Facultativa y/o los técnicos responsables del Parlamento. En ningún caso sobrepasarán el precio ofertado por la empresa contratista.

4 CONSIDERACIONES, REQUISITOS Y PLAZOS

4.1 Plazos de ejecución

Los trabajos se podrán comenzar una vez adjudicado el contrato, tras acordar con la institución del Ararteko la fecha más adecuada para ello.

En cualquier caso, los trabajos deberán concluirse en el plazo máximo de dos meses respecto a la fecha en que se firme el acta de replanteo de la obra.

4.2 Visita a las instalaciones

Las empresas interesadas podrán visitar las instalaciones para aclarar dudas y conocer la instalación actual. Para ello deberán contactar con el Servicio de Mantenimiento de la Cámara, Teléfono 945004290, e-mail: mantenimendu@legebiltzarra.eus

4.3 Dirección facultativa de las obras

El Parlamento nombrará un técnico que, en su representación, realice las labores de Dirección de Obra, que efectuará la coordinación, inspección, comprobación y vigilancia para la correcta realización de las obras. Además, el técnico responsable del departamento al que se adscribe este contrato (Sección de Mantenimiento) realizará dichas funciones, de forma coordinada y consensuada con aquél.

Serán funciones de la Dirección de obra:

- Interpretar el Pliego y demás documentos contractuales.
- Realizar aclaraciones al modo de ejecución y materiales a utilizar.
- Exigir la existencia y utilización de los medios materiales y humanos necesarios para la correcta ejecución del objeto del contrato.
- Ordenar lo pertinente para la correcta ejecución.
- Proponer e informar las modificaciones que convengan introducir.
- Informar la cesión y la subcontratación.
- Expedir las certificaciones en los plazos y fases que se hayan establecido.
- Tramitar cuantas incidencias se den en la relación contractual.

4.4 Responsable del contrato por parte del contratista

El contratista designará un Delegado de obra, cuya titulación será la adecuada a la naturaleza de las obras a realizar, con experiencia acreditada en obras similares, y necesariamente aceptado por la Administración.

4.5 Coordinación de Seguridad y Salud

El Parlamento Vasco podrá nombrar un técnico que, en su representación, realice las labores de coordinación de seguridad y salud o de gestión preventiva, y que será el encargado de requerir la documentación y realizar el seguimiento general de la seguridad y salud de las obras objeto de este pliego.

En cualquier caso, la adjudicataria deberá facilitar al Parlamento Vasco, o a su representante, la información necesaria para garantizar el cumplimiento de las medidas de seguridad y salud, y deberá adoptar las medidas que se le indiquen.

En los precios ofertados están incluidas los costes asociados al cumplimiento de la normativa de Seguridad y Salud.

4.6 Garantía

Todo el objeto del presente concurso estará garantizada **por 2 años**.

Durante este plazo, el adjudicatario se compromete a reemplazar sin coste para el Parlamento Vasco todos aquellos elementos de cada una de las unidades de obra suministradas e instaladas que presenten irregularidades en su funcionamiento, operación o ejecución imputables a defectos de fabricación o instalación.

La garantía empezará a contar desde la fecha del acta de recepción de la instalación.

Todos los gastos derivados del personal de asistencia técnica, desde desplazamientos, dietas, portes y seguros, así como los materiales a emplear, hasta instrumentación, equipos de medidas, documentación, stock de mantenimiento y reparación, soporte o actuación de terceros (fabricante o representación) serán a cargo del adjudicatario y entrarán dentro de la oferta económica.

4.7 Documentación a entregar para la recepción de la instalación

Para poder dar por recibida la obra ejecutada será preciso entregar la documentación técnica de todos los materiales utilizados en la obra, así como cualquier otra documentación que le sea requerida por la dirección facultativa para dar cumplimiento al Control de Calidad, Gestión de residuos u otras, y tras restituir los locales e instalaciones a su configuración inicial.

5 PRESENTACIÓN DE LA OFERTA

Para la adjudicación de este contrato será preciso presentar antes de la fecha indicada en el anuncio, la documentación "ANEXOS A PRESENTAR" cumplimentada, a través de la plataforma www.contrataciion.eus

5.1 Oferta económica: Anexo III.1

Se entregará la oferta económica, desglosada en los precios de los capítulos que se definen en el presupuesto base de la licitación.

La descripción de materiales y unidades de obra que figuran en el Presupuesto adjunto a este pliego puede no ser exhaustiva, y ser solamente enunciativa y dirigida simplemente a la mejor comprensión de las características del trabajo a realizar. En consecuencia, los materiales no reseñados y las operaciones no descritas que sean manifiestamente necesarias para ejecutar una unidad de obra, se consideran incluidas en los precios de abono.

Todas las partidas ofertadas, tal y como se indica en documento de presupuesto deberán contemplar la parte proporcional de mano de obra, ayudas de gremios, medios y material auxiliares necesarios para la correcta ejecución y terminación, así como la parte correspondiente a las medidas de seguridad y salud necesarias para la ejecución segura de las diferentes unidades de obra. Además, incluirán los importes correspondientes a los gastos generales y beneficio industrial. Es decir, que los precios unitarios de la oferta, serán precios definitivos, por contrata, y tan sólo se les aplicará el IVA correspondiente.

Para una mejor comparación entre las ofertas, para las partidas descritas como Partida Alzada se mantendrán los mismos precios que se indica en el presupuesto que se adjunta con este pliego. En caso de que éste se modifique, el precio máximo a abonar para esa partida será el indicado por el contratista.

5.2 Planificación de las obras

Se entregará una planificación para los trabajos, que una vez adjudicada la obra será revisada y aprobada por la Dirección Facultativa y los servicios técnicos del Parlamento y del Ararteko.

El plazo máximo de ejecución propuesto no podrá ser superior a 8 semanas.

6 CRITERIOS DE VALORACIÓN Y DESEMPATE

El órgano de contratación, previamente a la adjudicación, podrá recabar cuantos dictámenes e informes complementarios estime pertinentes.

La valoración se realizará sobre 100 puntos máximos de acuerdo a la ponderación siguiente:

Criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas ..... 100 puntos

6.1 Criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas

PRECIO: 100 puntos

Se otorgará la máxima puntuación a la oferta más económica y el resto se valorará de forma inversamente proporcional, aplicando la siguiente fórmula:

$$P = R \times \frac{Min}{Ofer.}$$

P= Puntuación obtenida
R= Puntuación máxima correspondiente a este apartado (100)
Min. = oferta económica más baja
Ofer.= oferta que se valora

6.2 Criterios de desempate

El empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

1) Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.
2) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.
3) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
4) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

En el caso de trabajadores autónomos con empleados a su cargo, en el cómputo de trabajadores se incluirán los propios trabajadores autónomos.

7 PRESUPUESTO MÁXIMO

El presupuesto de licitación para la ejecución de las obras será de:

50.153,19 € + 10.532,17 € de IVA = 60.685,36€

Estos precios tienen carácter de máximos y, por tanto, las ofertas que los superen serán rechazadas.

La propuesta se adecuará al modelo recogido en el Anexo II.1 que resume los capítulos del presupuesto.

La adjudicataria deberá presentar el desglose de su oferta, con unidades y precios unitarios por cada elemento, partida o instalación que haya considerado, y que, lógicamente, deberá coincidir con el importe total ofertado.

Se adjuntan formatos del presupuesto base de licitación, ciegos, en presto, bc3, Excel y Word).

En el precio final se incluirán los gastos generales y el beneficio industrial, los impuestos, los seguros, el transporte y cualquier otro coste relacionado con el trabajo a ejecutar para el suministro llave en mano del sistema propuesto y la retirada de las instalaciones que queden fuera de servicio.

8 ABONO DE LA PRESTACIÓN

El adjudicatario podrá presentar hasta dos facturas; una, cuando esté ejecutado un 40 % de la obra, por un importe máximo del 40 % del presupuesto presentado, y el 60 % restante (o importe inferior si no se ha facturado el 40 % en la primera factura), a la recepción de la obra.

Una vez levantada el acta de recepción a la conclusión de las obras, el adjudicatario presentará factura por el importe de la oferta presentada, o lo que reste si ha facturado una parte previamente. Los pagos serán abonados con cargo a la partida 62201 del presupuesto del año 2021 del Parlamento Vasco.

Los vencimientos serán a 30 días f.f.

9 CONDICIONES DE EJECUCIÓN

La empresa adjudicataria, y en caso de subcontratación, el subcontratista, deberán cumplir las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en material laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

En particular, deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel, y siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo.

En la ejecución del contrato, la empresa contratista garantizará la igualdad entre mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de las medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de las personas adscritas a la ejecución.

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y MEJORA DE ACCEBILIDAD AL ARARTEKO

EXP.: ELPV-1900-R-21
MEMORIA

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y MEJORA DE ACCEBILIDAD AL ARARTEKO

EXP.: ELPV-1900-R-21
PLANOS

SUPRESIÓN DE BARRERAS ARQUITECTÓNICAS Y MEJORA DE ACCEBILIDAD AL ARARTEKO

EXP.: ELPV-1900-R-21
PRESUPUESTO Y MEDICIONES